

# B euskararen BERRIPAPERA

## IPURBELTZ: 20 urte haurren alboan

**H**aur eta gazteentzako euskarazko aldizkari gehiegirik ez dago, zoritxarrez, Euskal Herrian; guztiak eskuratuta ere, lau baino ez ditugu bildu: *Ipurbeltz*, *Kometa*, *Xirrista* eta *Kili-Kili*. Aldizkari hauetako bakoitzaren historia eta ibilbidea desberdinak dira eta gutxi edo gehiago malkartsu eta eragozpenez bete da; hori dela eta ezin ditugu guztiak zaku berean sartu eta multzo bezala tratatu. Halere, badute elkarren artean loturarik: haur eta gaztetxoentzako dira guztiak (4 eta 12-14 urte bitartekoentzat), euskararen erabilera bultzatzea dute helburu nagusia eta erabiltzen duten bitartekoa komikia da, nagusiki.

Guztiotan aitzindari *Kili-Kili* izan zen; 1964an sortu zen Bilbon Jose Antonio Retolazaren eskutik nahiz eta gerora "Euskerazale" elkarte arduratu den bere prestaketa eta argitalpenaz. Bizkaiako haurrek alor honetan zuten hutsunea betetzea izan zuen helburu hasieran, baina urte batzuk geroago Euskal Herri osora hedatu zen eta horrela darrai oraindik. Ondoren jaio zen *Ipurbeltz*; 1977koa da bere lehen alea eta Donostian ikusi zuen argia. Beste bi aldizkari ibilbidea oso laburra da oraindik; *Xirrista* aldizkaria, esaterako, 1992an kaleratu zuen Euskal Kultur Erakundeak eta 1994az gero 'Xirristazaleak' elkarte arduratu da bere argitalpenaz; *Kometa*, berriz, ia jaioberria dela esan genezake. 'Xirristazaleak' elkarteak berak kaleratu zuen bihilabetekari hau.

Elkartearen asmoa da haurrentzat zein gazteentzat egokienak diren produktuak kaleratzea. Guztiei buruz zer esanik baldin badago ere, *Ipurbeltzen* 20. urteurrena dela aitzakia hartuta, aldizkari hau dakargu hona hizpide.

### Hasierako lehen urteak

Ikastolen mugimendua puri-puri zegoen garaira joan behar dugu *Ipurbeltzen* sorrera topatzeko. Arestian aipatu bezala, 1977an jaio zen

marraskilarien alde jokatu zuen, kanpoko lanak itzuli eta egokitu orde. Hasierako proiektu hartan buru-belarri ibili ziren Julen Lizundia, Anjel Lertxundi, Antton Olariaga eta Jon Zabaleta. Argitalpen hamabostekari gisa jaio zen eta komikiaz gain, txiste eta denborapasak aurki zitezkeen bertan.

### Etorkizunari begira

*Ipurbeltz* gaur egun euskal komikiaren derrigorrezko erreferentzia dela esan deza-



✕ *20. urteurrenean ale berezia kaleratu du Ipurbeltzek.*

*Ipurbeltz*, EREIN argialetxearen eskutik. Euskararen transmisioa kezka nagusienetakoa zen garaian jaio zen, hain zuzen, aldizkari hau. Komikiak haurraren bizitzan duen eraginaz, hizkuntza zuzena eta kolo-kiala lortzeko dituen aukerez eta, bere bidez umorea, fantasia, istorio bat eta berezko estetika proiektatzeko aukerez jabeturik, hasieratik bertatik Euskal Herriko gidoigile eta

kegu. Hogei urte hauetan euskara arrunta lantzen eta eguneroko egoera erreala erakutsiz, euskara jolas-hizkuntza ere badela agerian utzi du. Urte hauetan aldaketak izan dituela ere nabaria da -pertsoneiak, istorioak, estiloa...-, baina beti ere, irakurlearekin batera bidea urratu nahian; lehenengo alea argitaratu zenetik 20 urte betetzera doazela, garaia araberako alda-

## S U M A R I O A

- 1 **Ipurbeltz: 20 urte haurren alboan**
- 2 **Laburrak**  
Karlos Santamaria Ansa  
Agenda
- 3 **HABE: 97/98 ikasturterako plangintza**
- 4 **Pertsonaiak**  
Hizkuntz Normalizaziorako II. Plangintzaldia  
Lehen begiratuan

keta sakonak egitea eta erabateko berritua ematea erabaki du EREINek. Ez da gehiago komikia besterik izango. Izango du komikitik ere, baina gaztetxoek hilabetekaria izango da nagusiki, gaztetxoentzako kalitatezko euskarazko aldizkaria hain zuzen.

8-12 urte bitarteko gazteak izan ditu beti gogoan *Ipurbeltzek* eta eraberritze sakon honetan gaiak 'modernizatzeari' ekin dio, gazteei gaur egun interesatzen zaizkien gaiak landuz: zinea, musika, kirola, literatura, bideojokoak, etab., horretarako kolaboratzaile sare zabala eratuz. Hala ere, ohikoak diren sail finkoak mantendu egin ditu, hala nola, txisteak edo denborapasak.

Miel Anjel Elustondok zuzentzen duen aldizkari honek 2.500 aleko tirada kaleratzen du eta 2.000 harpidedun baditu; hala ere, promozioa landu eta Euskal Herriko bazter guztietara iristea, harpidedun gehiago lortzea, haur eta gazteen erreferentzia sendoagoa bihurtzea eta gainerako aldizkariekin batera, haur eta gazteentzako prentsaren berri ematea dira urteurreneko urterako ezarri dituzten helburuak.

## LABURRAK

## Iziar opera

Iziar euskarazko ganbara-opera ikusi ahal izan zen joan den urtarrilaren 9an Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Migel Oñate konpositore donostiarrak (1868-1941) 1906an egin zuen izen bereko obran oinarrituta dago. Urrietako Sarobe Arte Eszeniko Guneko Euskal Kamara Opera taldeak egokitu eta ekoiztu du; Juan Jose Mena eta Juan Jose Oconen zuzendaritzapean Pablo Sorozabal Haize Boskotea, Gerardo Rifon organojolea, Peñafloida Kaperako abeslariak eta beste hainbat kantari aritu ziren. Bi ekitaldi ditu eta jatorrizko testua Elias Gorostidik idatzi zuen.

Egitasmo horrek Urrietako Udalaren, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta Europako Batzordearen laguntza du eta opera berriak produzitzeko asmoa du. Bestalde, antzezpen horrekin hasiera eman zitzaion Donostian Kantuz zikloari; urte honetan zehar lau musika-ikuskizun aurkeztuko dira, zein eta noiz izango diren oraindik zehaztu gabe dauden arren.




## Literatura Unibertsala bilduma

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, EIZIEk (Euskal Itzultzaile eta Interpretarien Elkarte) eta Ibaizabal argitaletxeak sustatutako Literatura Unibertsala bildumaren bost liburu berri aurkeztu ziren urtarrilaren 9an. 100 izenburuko bilduma osatzeko bidean, 70era iritsi dira azken bost horiek; hortaz, abiada ezin hobea hartu duela esan behar da. Aurkeztutako azken liburuak eta itzultzaileak honakoak dira: G.B. Chesternon-en *Ostegun izan zen gizona*, Juan Garziak itzulia; Giorgio Bassani-ren *Finzi-Continitarren lorategia*, Koldo Bigurik itzulia; H. C. Andersen-en *Hemeretzi ipuin*, Martxel Eguen Taldeak itzulia; Jorge Amador-en *Jubiabá*, Valentín Olaetxeak itzulia eta zenbait poeta katalanen *Antologia*, Gerardo Markuletak itzulia.

## Karlos Santamaria Ansa

**K**arlos Santamaria pentsalari, matematikari eta kultur eragilea Donostian jaio zen 1909an. Madrilen Zientzia Zehatzak ikasi eta matematikako ikerkuntzari lotu zitzaion 1931n. Gipuzkoan goi-mailako ikasketak antolatu eta unibertsitatea bideratzen saiatu zen: Eusko Ikaskuntzaren eskutik Donostiako Ikerkuntza Zientifikoen ikastetxea (1932), Injineruen Goi-mailako Ikastetxea (1940), Donostiako EUTG (1956) eta Gipuzkoako Unibertsitatea Sustatzeko Batzordeko zelarrik, Zuzenbide (1968) eta Kimikako Fakultateen (1973) sorreran parte hartu zuen. Donostiako gainerako fakultateen sorreran ere berebiziko garrantzia izan zuen. Euskara modernizatzeo eta erabilera zabaltzeo ekintza zenbaitetan gogor jardun zuen, bereziki eskola-alorrean, Donostiako Santo Tomas lizeoaren sorreran (1961) eta komunikabide-alorrean, *Zeruko Argiaren* argitaraldi berria bultzatuz (1963), *Jakin* aldizkaria sustatu eta zuzendaritzan parte hartuz (1967-69) eta *Euskaldunon Egunkaria* sustatzeko 1989an eraturiko taldeko kide izanez (1989). Kristau-pertsonalismoan oinarritu zuen bere pentsamendu kritiko, sozial eta politikoa, humanismo izpirituala errealitatearen analisi zientifiko-teknikoari lotuz. Bakearen aldeko *Pax Christi* mugimenduko kide eta idazkari izan zen (1958-66). 1963an euskaltzain urgazle eta 1993an euskaltzain ohorezko egin zuten. Eusko Kontseilu Nagusiko hezkuntza-kontseilari (1978-80) eta EHUKo *honoris causa*



doktore ere izan zen (1992). Egunkari eta aldizkarietan euskaraz eta erdaraz idazteaz gain, liburuak ere idatzi zituen: *La filosofía política de Jacques Maritain*, 1950; *La Iglesia hace política*, 1979; *La amenaza de guerra nuclear*, 1985, etab. Karlos Santamaria 1997ko abenduaren 30ean hil zen Donostian.

## AGENDA

## Txominen lagunak

Miarritzeko "Biarritz Culture" elkarteak euskal kanten bi saio antolatu ditu otsailaren 28 eta martxoaren 1erako, gaueko 9etan eta arratseko 5etan, hurrenez hurrez. Kantaldiak, *Txominen lagunak* "elkarrekin kantatzeko atsegina" izenburupean, Miarritzeko Colisée

antzokian izango dira. Bertan bilduko dira P. P. Berzaitz, Pantxoa Cousteau, M.-H. Estekahandi, Niko Etxart, Txomin Heguy eta Maddi Oihenart kantariak akordeoilari eta pianojole baten laguntzarekin.

★ **Ahoz aho, belaunez belaun ... hil honetan non?**

Otsailean Zornotzan



# HABEk, 97/98 ikasturtean “Egitasmoa eta Memoria: autoebaluazioaren bidean” plangintza eratu du

**H**ABEren plangintza berri honek Egitasmoa eta Memoria ditu oinarri: euskaltegiek urtero aurkeztu behar dituzten bi dokumentu; helburua, berriz, hobekuntza etengabearen kultura sustatzea euskaltegietan, HABEren irizpide orokorren baitan; eta bitartekoak, azkenik, zuzendaritza-taldeen heziketa eta kanpoko ebaluazio formatiboa. Heziketari dagokionez, aurtengo ikasturterako lau mintegi eratu dira. Lehenengoan, joan den abendukoan, proiektuaren ikuspegi orokorra azaldu zen. Bigarrenan, harreman-sistema eta giza baliabideen kudeaketa landuko dira. Hirugarrenean, berriz, ebaluazioa. Laugarren saioan, azkenik, egitasmoa eta memoria jorratuko dira. Horiez gain, adituek emandako hitzaldiak tartekatzekeo asmoa dago.

Horrela, egitasmoak eta memoriak, euskaltegiaren proiektua ipar dutela, kudeaketarako dokumentu izango ditugu: jarritako helburuak urte betean lortzeko zer eta nola egingo den azalduko du lehenak, emaitzen ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak bigarrenak. Beraz, xedea ez da dokumentuak bere horretan hobetzea edota “dokumentitis”ean erortzea, autoebaluazioaren eta hobekuntzaren bidean lanabes eta bitarteko bilakatzea baizik.

## Abenduan lehendabiziko mintegia

Abenduan antolatu den mintegiak bi gai izan ditu ardatz:


- euskaltegia erakunde gisa ulertzea,
- egitasmoa eta memoria erakunde-planteamenduetan kokatzea.

Ikuspegi teoriko-praktikoaz garatu da, azalpenak eta euskaltegien bizitzarekin lotutako ariketak tartekatuz.

Bederatzi saio burutu dira: bat Araban, lau Bizkaian eta beste hainbeste Gipuzkoan. Guztira, 187 kide aritu dira, eta berorien sailkapena, lurraldeka eta sareka, ondoko taulan jaso dugu:

Herrialdea	S A R E A						guztira
	Udal euskaltegia	AEK	barnet.	Bertan	IKA	beste	
ARABA	1	3	-	4	10	-	18
BIZKAIA	43	25	1	10	-	9	88
GIPUZKOA	38	25	0	10	-	8	81
<b>guztira</b>	<b>82</b>	<b>53</b>	<b>1</b>	<b>24</b>	<b>10</b>	<b>17</b>	<b>187</b>

Datuon arabera, ia euskaltegi guztietako ordezkariak hartu dute parte. Egin duten ebaluazioa positiboa izan da; besteak beste, % 93k hurrengo ekitaldietan gaia sakontzeko interesa adierazi du.



### Erlantz Urtasun

Erlantz Urtasun historialari nafarra Iruñian jaio zen 1969an. Gasteizko geografia eta historiako ikasketak egin zituen. 1993-95 bitartean doktoretza ikasketak egin zituen. Nafarroako Artxibategi Orokorreko eta Nafarroako Gobernuko bekadun izan zen. Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, Aranzadi Zientzi Elkarte eta Zaldiko Maldiko elkarteak antolaturiko jardunaldi, biltzar eta hitzaldietan parte hartu du, besteak beste. Hainbat hitzalditan ere hartu du parte Nafarroan zehar, beti ere Nafarroa eta euskara gai hartuta. UEUko Antropologia Saileko kide

eta *FLV*, *Argia*, eta abarretako kolaboratzaile ere bada. Nafarroan euskarak izan duen bilakaeraren inguruan hainbat ikerketa egin du eta horren haritik doa bere tesilana ere; lana prest dauka eta udaberriaren defendatzea espero du: *Nafarroako Erribera Lehen Ertarotan. Hizkuntz Mugaren Egoera*. Erriberan latinetik gaztelera-rako bilakaera nagusi izan dela diotenei aurre eginez, eta datu geografiko, historiko, arkeologiko, etnografiko, antropologiko, soziolinguistikoko, etab. kontuan hartuta, garai hartan Erriberan euskara bizi-bizi zela topatu du.



### Iziar Basterretxea

Iziar Basterretxea soziologia-irakasle bizkaitarra Basaurin jaio zen 1957an. Deustuko Unibertsitatearekin eta soziologiarekin lotura handia du; Deustuan ikasi zuen soziologia eta 1987an doktoretza lortu zuen Unibertsitate eta gai berean. 1986az geroztik Deustuko irakasle da soziologia saillean. Labayru ikastegi-ko eta Eusko Ikaskuntzako kide eta soziologiako gaiak lantzen dituen *Inguruak*

aldizkariako erredakzio-taldekoa da. 1997an, Durangoko Azokan Labayru ikastegiak aurkeztu zuen *Euskal alfabetatzearen historia zenbait sortzaileen ahotan (1960-1990)* liburuaren egile-etako bat da; lan hori lankidetzan egin dute Alejandro Aldekoa-Otalorak, Izaskun Gorostiagak, Patxi Juaristik eta Iziar Basterretxeak berak. Euskal alfabetatzearen prozesua modu eta



leku desberdinetan bizi izan duten batzuen iritzi, esperientzia, oroitzapen, eta abarrak jasotzen dira, beti ere, elkarriketetan oinarrituta.

### Hizkuntz Normalizaziorako II. Plangintzaldia

lazko apirilean EAEko herri-administrazioetako euskararen erabilera normalizatzeko II. Plangintzaldiari buruzko Dekretua onartu zen. Dekretuaren zenbait punturen aurka UGT sindikatuak errekurtsioa jarri zuen Auzitegi Nagusian eta epaia eman arte dekretua ez ezartzeko eskatu zuen. Auzitegi Nagusiak eman zuen autoaren arabera, berriz, dekretua ez da eten behar honako arrazoi hauengatik:

- UGTk ez zuen zehaztu dekretuaren ezarpenak eragindako eta konponezina edo konponbide zailekoa den kalterik.
- Dekretuaren ezarpenak interes publiko nabarmena dauka.
- Dekretuak Autonomia Estatutuarekin lotura zuzena dauka; herritarren eskubideei eragiten die eta Euskararen Legea eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea garatzen ditu. Halaber, zerbitzu publikoei eragiten die.

UGTk beste errekurtsio bat aurkeztu zuen aipatutako autoaren aurka, eta horren ondorioz, Dekretuaren 24. atalaren a) eta b) azpiatalak eta 18. atalaren b) azpiatala etetea ebatzi zuen Auzitegi Nagusiak. Hortaz, negozio-mahaia eratu behar da langileen ordezkariarekin lanpostuei hizkuntza eskakizunak eta derrigortasunak ezartzeko. Nolanahi ere, azken auto hori eman baino lehen, Eusko Jaurlaritzak negozio-gaitzat jo zuen hori. Horren adierazlea da Eusko Jaurlaritzak ELA-STV, LAB, CCOO eta UGT sindikatuarekin EAEn zerbitzupeko funtzionarioen lan baldintzen gainean erdietsitako azken Akordioa.

## Lehen begiratuan



**H**erri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAPek), administrazioko testuen kalitateaz arduratuta, testugintza lantzeko tresnak eskaini nahian aurrera darrai. Oraingoan, Juan Garziaren *Joskera Lantegi* liburua kaleratu du. Euskararen berezitasun nabarienetakoa joskera-mailan dagoela eta, gaztelaniazko sintaxiaren eragina eta presioa, ahozko hizkeraren eta hizkuntza idatziaren sintaxien arteko nahasketa eta euskarazko puntuazio-kode autonomo baten premia landu ditu, besteak beste, 600 orrialde dituen liburuan.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

#### Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz  Gaztelaniaz

Izen-deiturak: .....

Helbidea: .....

Herria: .....

Kodea: .....

Lurraldea: .....

Tel.: .....

